

Gradua: EUSKAL IKASKETAK

Ikasturtea: 2015-2016

# BI HITZ HERNANIKO HIZKERAREN INGURUAN

---

Maddi Aranburu Gonzalo

Saila: Euskal Dialektologia

Tutorea: Iñaki Camino

## LABURPENA

Ondotik datozen orrialdeetan, Hernani herriko hiru hizkuntza-ezaugarri hartu eta inguruko herriekin alderatu ditut, muga bat ezartzeko asmoz. Helburua, aukeratutako hizkuntza-ezaugarri hauek nolabait “mugatzea” izan da; herri batetik bestera ea ezaugarria gertatzen den ala ez aztertzea.

Horretarako, lana honela antolatu da: laburpen honen ondoren, Hernani herriaren gerturatzeko soziolinguistiko bat egingo dut, eta lan honetarako erabili den corpusaz mintzatuko naiz. Jarraian, teoriaren azalpen labur bat etorriko da. Bertan isoglosa terminoaren zertzelada bat aurkeztu eta Hernaniko hizkeraren inguruan egindako Irizarren (1991) obra edukiko dut aipagai. Ondoren, lanaren mamia dator, eta bertan hiru hizkuntza ezaugarri hartuko ditut lan honen ardatz. Lehenik,  $-u + a > -uba$  ezaugarri fonologikoa landuko da. Bigarrenik,  $-ei/-ai + -di/-ri > -aidi, -oidi$  datibo pluraleko pleonasmoa izango da aztergai, eta hirugarrenik, aditz morfologiari dagokion  $-zki-$ ,  $-zka-$  pluralgile txandaketaz idatzi da. Geroago, ezaugarri hauek hautatzeko arrazoiak azalduko dira, eta baita azterketa bera ere. Lanaren azken orrialdeetan, prozesu guztiaren eta topatu dudanaren ondorioak aurkeztuko ditut. Azken ondorioen ondotik, lanean zehar aipatutako erreferentzien bibliografia aurkeztuko da.

Behin hau guztia azaldu ondoren, azpimarratu beharko litzateke, lan honetarako ahozko datuak eduki beharrean, idatzizko datuak eduki ditudala. Corpuserako, *Hernaniko dotrina*, *Erizkizundi Irukoitza* eta *EHHako Hernaniko datuak* erabili ditut. Alderatzeko, Urnietako eta Astigarragako *Erizkizundi Irukoitza*, *Astigarragako hizkera* liburua, *Oiartzungo hizkera* izeneko lana, Donostiako euskararen inguruko artikulu bat eta *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, eta *EHHako Lasarteko datuak* eduki ditut eskuartean. *EHHako datuak*, ahozkoen transkribaketak dira.

Ondorioetan argituko denez, hautatutako hizkuntza-ezaugarriak (fonologikoa, izen morfologikoa eta aditz morfologikoa) ez dira endemikoak. Esan nahi da, hautatu ditudan ezaugarri hauek, Hernanin agertzeaz gain, ondoko herrietan ere presentzia handia dute. Honek erakusten duenez, Hernaniko hizkera beharrean Beterriko hizkeraren aurrean geundeke, elkarren arteko eragina eta gertutasuna dela eta. Eta are gehiago, aditz morfologian aztertu den hizkuntza-ezaugarriaren kasuan, Beterriko ezaugarria ez ezik, Euskal Herriko beste eremuren batean ere ager izan zitekeen iraganean. Bestalde, agertu den beste ondorio bat, belaunaldien arteko erabileren etena

da. Hizkuntza-ezaugarri guztien kasuan, denborak aurrera egin ahala, ezaugarrien maiztasunak behera egin duela ikusi da.

**Hitzak:** Hernani | hizkuntza-ezaugarri | Beterri | belaunaldi | etenak |

## AURKIBIDEA

LABURPENA.....	2
AURKIBIDEA.....	4
TESTU INGURATZEA ETA CORPUSA .....	5
Hernani herria.....	5
Corpusa .....	5
TEORIA .....	7
Isoglosa .....	7
Hernaniko hizkeraren azterketa.....	8
HIZKUNTZA EZAUGARRIAK.....	10
Fonologia.....	11
Izen morfologia .....	17
Aditz morfologia .....	23
ONDORIOAK.....	28
BIBLIOGRAFIA.....	29

## TESTU INGURATZEA ETA CORPUSA

### Hernani herria

Datozen lerrootan, lan honetarako Hernaniko hizkeran oinarritu naizenez gero, testu-inguratze bat egingo dut herriari buruz.

Hernanin, 2009ko erroldaren arabera, 19.289 biztanle bizi dira, hortaz, ezin esan daiteke herri txikia denik. Herriak, immigrazio handia jasan zuen industria sartzean XX. mende hasieran, eta ondorioz, handitu zen herria. Bertako batzuek ere, prestigioagatik edo, euskara alde batera utzi eta erdarari heldu zioten.

Honek, herria handitzeaz gainera, soziolinguistikoki eragin zuzena izan zuen. Espainiatik etorritako familiek, kalean gaztelania bultzatu zuten, kaleko eta landa inguruko hizkuntza erabilera ezberdintasuna handituz. Landan, euskara erabiltzen zen artean, kalean, gaztelaniadunak bizi ziren auzoetan, erdarak gora egin zuen.

Azken datuak, soziolinguistika klusterrak 2011an egindakoak dira. Bertan, kaleko euskara erabilera %39,1ekoa da. Azpimarragarria da, 1986tik hona euskaldun kopuruak gora egin du: %44,2-tik %57,3-ra. Euskara gehien erabiltzen dutenak haurrak eta gazteak dira, eta adinak aurrera egin ahala euskara erabilerak behera egiten du (%17,7ra iritsi arte).

Datu hauek, halere, auzoka aldatu egiten dira. Hernanik, 42 m<sup>2</sup>-ko hedadura du eta, auzoz auzo egoera aldatu egiten da. Immigrazio gehien jasan duen eremuan (Larramendi-Lizeaga kalea, adibidez), euskararen erabilera %19,6koa da, eta landa eremuan (Ereñozu auzoan), aldiz, erabilera ia erabatekoa (%94,1).

Lan honetan erabilitako corpusa, EHHAkoa, behintzat, Ereñozu auzoko Epele bailarakoa da. Bertan, euskara da hizkuntza nagusia.

### Corpusa

Hernaniko hizkera islatzen duen corpusa eduki dut uneoro eskuartean. Hona hemen hurrenkera kronologikoan.

Lehen-lehenik, Bonaparteren Ondarean González Echegaray-Arana Martijaren Katalogoan dagoen Hernaniko Dotrina erabili dut. Dotrina honen itzultzailea eta egilea Klaudio Otaegi zegamarra da, baina, edozein kasutan, testuan Hernaniko hizkera errespetatzen dela dirudi. Izenburua bera, *Catecismo en el dialecto de Hernani. Un*

*Cuaderno*. da. Berez, bi eskuizkribu gordetzen diren arren, bakarra da: 208 zenbakia orijinala, eta bestea, 192 zenbakia, hartatik jaso.

Horrez gain, Bähr hizkuntzalari eta inkestazaileak 1922-1925 bitartean *Erizkizundi Irukoitz*-erako Hernanin egindako inkestaren erantzunak eduki ditut. Erizkizundi Irukoitza Azkuek agindu zuen, eta bertan zazpi euskalki aipatu zituen; bizkaiera, gipuzkera, goi-nafarrera, lapurtera, behe-nafarrera, zuberera eta erronkaria. Azkuek, hainbat lankide eta elkarrizketatzaile eduki zituen, eta, horien artean, Hernani eta inguruetan ibili zen Bähr hizkuntzalaria. Nik erabilitako datuak Petra Lizeaga izeneko 64 urteko andere batenak dira, baina ez da zehazten Hernaniko zein auzotakoa zen.

Gainera, Mikel Fernandez-ek 80ko hamarkadan eginiko dialektologia lan bat eduki dut *Deklinabideari buruzko galdaketa Hernanin. (Hiru informante)*. Lan hau, aipatu Fernandezek egin zuen, EHUKo Henrike Knörr hizkuntzalariaren unibertsitate kurtso batentzat. Egun, Iñaki Camino-ren bulegoan dago lana, EHU barreneko lana baita. Nire lan honentzat oso interesgarriak diren datuak eta informazioa eskaintzen ditu.

Amaitzeko, Euskaltzaindiak EHHA osatzeko Izaskun Etxebeste-k egindako elkarrizketak eduki ditut<sup>1</sup>. Lekukoak Ereñozu auzoko Epele inguruko adineko bi ziren. Beraz, lerro batzuk lehenago aurreratu bezala, auzo baserritar eta euskaldunari dagokion kokapena du corpusak.

Bestalde, hautatu hizkuntza-ezaugarriak ondoko herriekin alderatu ditut, isoglosa bat ezartzearen mapan. Horretarako, EHHAKo Lasarteko corpusa eduki dut, Lasarteko hizkeraren analisi laburra, Astigarragako lekukotasunak, Goizueta eta Aranoko hizkeren ezaugarriak jasotzen dituen obra, Oiartzungo hizkeraren ezaugarriak jasotzen dituen.

---

<sup>1</sup> Izaskun Etxestek egindako elkarrizketen transkribaketak erabili ditut. Argitaratu gabeak dira, Etxebestek bere lankide Camino nire tutoreari utzi dizkionak, EHHA egitasmoan elkarrekin aritu baitziren. Hori dela eta, erreferentziak egiteko orduan zuzenean transkribapenetako PDFformatuaren orrialdeak idatziko ditut.

## TEORIA

### Isoglosa

Esan bezala, Hernaniko hizkeraren hiruzpalau ezaugarri hartuko ditut, eta ondoren, ezaugarri horiek mugatzen ahaleginduko naiz. Hizkuntza-ezaugarrien hedadura markatzen saiatuko naiz, modu xume eta labur batean.

Hedaduraren mugak zehazte aldera, isoglosa markatu beharko litzateke. Horretarako, lehenengo, isoglosa zer ote den argitzen ahaleginduko naiz.

Caminok (2009:133) honela definitzen du kontzeptua:

Geografian gaindi hizkuntza-ezaugarri baten hedadura homogeneoa baldin bada, eremu bat osatzen du; eremu horren irudia erakusten digun marra isoglosa dela esan ohi da.

Hortaz, marra bat da, ezaugarri batek hartzen duen espazioa, hedadura. Terminoaren historian zehar, “isolexema”, “isosema”, “isomorfo” edo “isofono” hitz teknikoak erabili izan dira, hizkuntzaren atal zein azpiatalentzako. Termino honekin batera azaldu zen “heteroglosaren” ideia:

Bi hizkuntza-erabilera desberdin, bakoitza geografikoki koherentea den bere eremuan ageri zaizkigunean, aski da bi eremuen arteko banaketa irudikatuko duen marra bat ematea, bi eremuak moztea; hori bera da isoglosa. Ñabardurak egin nahiez edo, usu adierazi izan da isoglosak ez doazela hizkuntza-eremuen artean, hizkuntza-eremuan gaindi baizik, eta horregatik heteroglosaren ideia agertu zen. (Camino, 2009: 134).

Hortaz, heteroglosa isoglosa bezalako marra bat da, baina, alderdi bakoitzean gertatzen diren ezaugarri berdin horiek elkartzen dituen.

Hemen gehien aipatuko dena *isoglosa* kontzeptua izango da. Honetarako, Caminok (2009), Hans Henning Speitel-en hitzak (1969: 52 in Camino, 2009: 134) hartzen ditu, behar bezala azaltzeko delako kontzeptua:

Isoglosaren definizioa osatzeko eginahal baliagarria da Hans Henning Speitel-en lanetik har dezakeguna (1969: 52): haren arabera, hizkuntza-ezaugarri jakin bat gero geografia-eremu baten barrenean inguratzen du marra horrek, eta marra hori mugatzat interpretatuko dugu, dihardugun hizkuntza-ezaugarri hori duten herriez kanpo ezaugarri horrek:

-agerpenik ez badu.

-hizkuntza-eremu koherenterik osatzen ez badu  
ala

-Beste hizkuntza-ezaugarri batzuek eremu koherente bat osatzen badute ala ez badute

-ezaugarria baliatzen duten herriak inguratzen dituen marraz kanpo beste bizigunerik ez badago.

Hala ere, Caminok, Speitel hizkuntzalariaren beste ñabardura batzuk ere kontuan hartzen ditu, isoglosen arteko bereizketa bat egiteko (Speitel, 1969: 56-66 in Camino, 2009: 134-135):

-Hizkuntza-ezaugarri jakin baten erabilera-esparrua inguratzen duen marraren barrenean ezaugarriak agerpen-maiztasun handia baldin bada, inguratzen duen isoglosa lehen mailakoa da eta maiztasun bakanekoa baldin bada, bigarren mailakoa.

-eremuaren alderdi bakar batean ageri diren isoglosek, halako lekuko ezaugarri edo kolore berezia ematen diote eremuari.

-dialektoa gizakiaren inguruko kontuekin lotzen baita, jenderik bizi ez den eremu baten barrenean isoglosarik ez marraztea iradokitzen du

-hizkuntza-eremu anitzetara hedatzen den isoglosa, suprakdialektala dena, hizkuntza-eremu bakar batera biltzen denetik bereizten du

-bi isoglosa-mota bereizten ditu, estandarrak, aldaki ofizialekoak batetik eta dialektalak bestetik

-item ez bereizle ugari biltzen den eremuan, isoglosa ugarik izan lezaketen garrantzia edo eragina bakantzen dela dio.


Jakina denez, dialektoen mugak finkatzea ez da hain erraza; lausoa da, eta hainbat faktorek eragiten dute hizkeran. Hizkerak ez dira muga fin batez soilik eraikitzen, *continuum* baten parte dira, hizkuntza bizirik badago, etengabeko eraldaketa batean baitago. Caminok, Xosé Lluís García Arias-en (1997: 50) hitzak hartzen ditu azaltzeko (Camino, 2009: 211):

Sailkatzerakoan sekula ez da konponbide perfekturik erdietsiko: hizkuntza *continuum* baten baitako eremuek ez dute mugarik; hizkuntza-bilakabide jakinek baizik ez dute bakoitzak bere muga.

### Hernaniko hizkeraren azterketa

Pedro Irizar autoreak, 1991. urtean argitaratutako *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* liburukietan, 1970eko datuak erabiltzen ditu, eta datu horietan oinarriturik, Hernaniko hizkera, gipuzkeraren azpieuskalki sailkatzen du.

Aipaturiko datuen arabera, 12.400 hiztun kontatzen dira: Hernanin (Lasarte barne hartu gabe) 10.565, eta Astigarragan (Landarbaso barne) 1.830. Guztira, 12.400 euskaradun.





Beraz, hizkera, gipuzkeraren azpieuskalki kokatzen du, zehazki, euskalkiaren “septentrional” (iparraldeko) taldearen barnean. Hernaniko hizkera, ondoren, beste lau taldetan banatzen da: Hernani bertakoa, ipar-ekialdekoa, Usurbilgoa eta Oriokoa (Irizar, 1991: 14):

El examen de las formas verbales empleadas en los distintos lugares incluidos en la variedad bonapartiana de Hernani, aconseja, en mi opinión, la subdivisión de la misma en las cuatro subvariedades siguientes: propia, nororiental, de Usúrbil y de Orio.

Azpieuskalkiko aldaera bakoitza ezberdintzeko bi ezaugarri nagusi erabiltzen ditu Irizarrek (1991):

Alde batetik, Hernaniko eta ipar ekialdeko aldaeretan, adizkiaren forma iragankor eta alokutiboan, zehar osagarria lehenengo eta hirugarren pertsonakoa izanik, honako kasuak gertatzen direla azaltzen du:

Zehar osagarria lehenengo pertsona bada, Hernaniko bertako eta ipar ekialdeko aldaeran, *-iaken* (sg) eta *-izkiaken* (pl) jasotzen du. Astigarraga eta Donostian, *ziaken* eta *zizkiaken* formak aipatzen ditu. Zehar osagarria hirugarren pertsonakoa bada, ordea, *-iaken* (sg), *-izkioken*, *-izkaken* (pl) formak agertuko dira. Astigarraga eta Donostiaren kasuan, *nioken* eta *nizkaken* biltzen ditu (Irizar, 1991: 14):

Aitzitik, Orio eta Usurbilgo aldaerei dagokienez, kasu berdinerako, *-itx(a)ian* (sg) eta *-itx(a)ixkian* (pl) nagusitzen direla azaltzen du zehar osagarria lehenengo pertsonakoa bada. Hirugarren pertsona bada, aldiz, *-itx(i)on*, (sg.), *itxixkion*, *itxaskan* (pl.) azaltzen dira (Irizar, 1991: 14).

Hau da, Hernani eta ipar ekialdeko aldaeran, *ziaken*, *zizkiaken*, *nioken*, *nizkaken* bezalako adizkiak biltzen ditu. Orio eta Usurbilgo aldaeren kasuan, *itxixkion*, *itxaskan* aipatzen ditu. Alokutiboan eta forma iragankorretan, Orio eta Usurbil inguruan *-itx-* formak gailentzen dira.

Aldaerak bereizteko darabilen beste hizkuntza-ezaugarria fonologikoa da. Hernani eta Astigarragan kokatzen duen bustidura aipatzen da, eta honen arabera, herri hauetan *i* ren ondotik datorren *t* -a palatalizatu egiten da. Donostia eta Pasaiako hizkerek (ipar ekialdeko azpialdaera deitzen zuen) ez dutela egiten dio autoreak:

[...] en los lugares que pertenecen a la subvariedad propia (Astigarraga y Hernani) palatalizan la *t* cuando sigue a *i*, mientras que en los de la subvariedad nororiental (San Sebastián y los

Pasajes) no la palatalizan. [...] En Orío no palatalizan, mientras que en Usúrbil y en los demás lugares incluidos de esta suvariedad, sí realizan la palatalización. (Irizar 1991:14).

Hala ere, *i* ondoren *t*-ren bustidura ia Gipuzkoa guztian ohikoa dela esan daiteke, Caminok honela dio (2000: 68):

Gipuzkoan guztiz arrunta da *t* kontsonantearen bustidura automatikoa *-it-* testuinguruan; hurrengo herrietan bederen gertatzen da: Getaria *-tx-*eran gertatu ere-, Aia, Asteasu, Tolosa, Andoain, Usurbil, Hernani, Lasarte, Lezo, Errenteria, Oiartzun, Arano, Goizueta. Pasaian [...] adibide zenbait ageri da, baina bustidura ez da batere arrunta (Elortegi et alii 1997: 43). [...] Idatzi da (Irizar 1991) Donostian, Altzan eta Añorgan bilakabide hau ez dagoela. Donostian kaletarrek ez dute *-it-* bustidura automatikorik egiten, baina Añorgan iduri luke badela, eta baita Altzan ere.

Beraz, Irizarrek (1991) sailkapen bat egiten du Bonapartek egin zuena oinarri harturik. Liburuki hauetan, laburbilduz, Gipuzkeraren aldaerak bereizten ditu: Hernanikoa, Tolosakoa, Azpeitikoa, Zegamakoa, Burundakoa eta Etxarri-Aranatzekoak. Bakoitzari, era berean, azpialdaerak gehitzen zaizkio. Hernaniren kasuan, lau bereizten dizkio: berezkoa, ipar-ekialdekoa, Usurbilgoa eta Oriokoa. Lan honetan, Irizarren sailkapenaren arabera Hernaniko bertakoa aipatuko da gehien, hau da, Hernani, Astigarraga eta Donostiako auzo barrendegia den Landarbaso.

Bereizteko, lerro batzuk lehenago adierazi denez, indikatiboko aditz laguntzaile iragankor eta iragangaitzak hartzen ditu oinarri.

## **HIZKUNTZA-EZAUGARRIAK**

Hortaz, lehenengo lerroetan adierazi bezala, Hernanin ustez gertatzen diren hiru ezaugarri hautatu ditut, ondoren, alboko herrietan ageri ote den ala ez ikusteko.

Ezaugarriak hautatzeko baliatutako irizpideak argitzen saiatuko naiz datozen lerrootan.

Lehenengo eta behin, fonemen gertakariei begira, fonologian, corpusa irakurtzen ari nintzela, atentzioa eman zidan *-u + a > -uba* bilakabide fonologikoaren agertze/desagertzeak. Izan ere, konturatu nintzen, Hernaniko dotrinaren kasuan hain maiz gertatzen zena, gainontzeko corpusetan ia guztiz desagertua zela. Egun, Hernaniko biztanleen artean, jabetu naiz zaharrenek nekez egiten dutela eta gazteek ez dutela egiten ez bada hizkuntza-ezaugarria nabarmentzeko (txantxetarako, azentua indartzeko...).

Ondotik, izen morfologiari dagokionez, datiboari erreparatu diot. Izan ere, datiboan forma pleonastikoa agertzen da corpusaren parte batean. Horregatik, ondoko herrietan zer gertatzen ote den jakin nahi nuen, ea ezaugarri hori Beterri ardatzaren inguruan sortua ote zen edota Hernaniko hizkuntza-ezaugarri endemiko baten aurrean ote nengoen. Emaitzetan ikusiko denez, Beterriko ardatzaren inguruan ere gertatzen den bilakabidea dugu honako hau. Gaur egun, ikastolan ikastearen eraginez, gazte gutxi batzuek egiten dute, eta ondoko herrietan ere, gutxi entzun daiteke horrelakorik gazteen ahotan.

Amaitzeko, aditz morfologiari heldu diot. Etxean hainbeste entzun dudana *-zka-* – *-z-* + *-ka-* alegia, pluralgilea gehi singularreko 3. pertsonaren morfema– plurala gehi azaldu nahi nuen. Egun, ustez, gazteen artean ez dela ia batere gertatzen, baina zaharrenek kasu batzuetan erabiltzen dute. Berdin gertatu da gure etxean, ezaugarri honek mugak jakiteak interesa sortu dit.

Aipatu beharrean nago, azterketa hasi aurretik, eskuartearen erabili ditudan corpusak euren artean aski ezberdinak eta denboran zehar nahiko banandutakoak direla. Ondorioz, testuen arteko hizkuntza-ezaugarrietan halako bilakaera bat nabari daiteke. Datuen aldakortasun honek, denboraren ondorioz gertatutako bilakabideez jabetzeko balio izan dit.

## Fonologia

### *Bokalen arteko -b- epentetikoa*

Euskalki batzuetan, maiz, *-u* eta *-a* bokalen artean hots epentetiko bat sortzen da. XIX. mendean, jadanik, Luis Lucien Bonapartek euskalkien banaketa egin zuenean, fonologia atalean jaso zuen bokalen artean bilakabide hau. Koldo Zuazo-k (2008) honelaxe azaltzen du:

(2) Bonaparteren (*Phon.*) lekukotasunaren arabera, XIX. mendearen erdialdean beste epentesi bat ere bazen Euskal Herriko erdigunean: *u* bokala eta *a*, *e*, *o* elkartzen zirenean, *-b-* sartu ohi zen euren tartean. Beraz, *esku* + *a* → *eskuba/eskuba*. Atzerakada galanta egin du ordutik hona: Gipuzkoako iparraldeko herri txiki batzuetan *-Beterri*, *gehienbat-* eta Nafarroako Sakanako erdigunean baizik ez dago gaur egun. Ahoskera “*arlotetzat*” jo izana da atzerakadaren arrazoia. (2008:198)

Zuazok (2008) adierazi bezala, atzerakada handia eduki du bilakabide honek urte gutxi hauetan. Iritzi honekin bat egiten du Caminok 1998an argitaratutako *Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunalditako Agiriak* bildumako artikuluetako batean:

[...] Donostiako egungo hogeita hamar urte inguruko hainbat lagunek haurtzaroan bereganatu zuen  $-u + a > -uba$  bilakabidea ez du gehiago emankortasunez erabiltzen. Bilakabide hori entzuna du  $-eta$  entzuten du oraino– etxean, baina beraren ezagutza pasiboa gelditzen zaio, ez aktiboa. Hurrengo belaunaldiko haurraren oso ahuldurik iritsiko dira galbidean diren morfologi eta fonologi bilakabide anitz, eta dialektoaren ezaugarriak ezkatatuaz eta galduaz joanen dira, Trudgill-ek dioenez “ondorioz hiztunek beren sorterriko bereko hizkeraren ezagutza zehatza galtzen dute. (1998: 143-144)

Baina, Hernaniko kasuari eutsiz, Caminok berak 2000ko artikuluan adierazi zuenez, Donostia eta inguruetan ohikoa zen (garai batean, behintzat),  $-b-$  epentetikoaren sartzea bi bokalen artean. Donostiatik mendebaldera joz, Hernani, Urnieta eta Andoain aipatzen ditu. Egun, hiztun zaharrez gain, oso indargabeturik dagoen bilakabidea dela adierazten du.

Eskuartearen edukitako corpusean, esango nuke, XIX. mendeko dotrinan maiz erabiltzen zen bilakabidea izan arren, EHHako corpusean, ia erabat desagertzen dela erabilera (aipatu behar dut, EHHako corpora Hernanikoa bai, baina Epele auzokoa dela, Aranora bidean dena, ez hernaniar *kaletarra*). Mende bakarrean halako atzerakada jasan izan badu bilakabide honek, zer pentsatua ematen du datorren urteetan gertatuko den (ia) erabateko desagertze posibleari buruz. Nire esperientziak ere halaxe erakutsi dit. Hernanin, gazteen artean ez da gertatzen bilakabide hau, izatekotan, azentua bortxatzeko “graziaz” egiten den indarra da, natural sortzen ez dena. Zaharrenek ere ez dute egiten oso maiz.

Bonaparteren Ondareko Hernaniko dotrinan, Klaudio Otaegik itzulua, oso ohikoa eta naturala da  $-u + a > -uba$  egitea. Lehenengo esalditik beretik dago: *Cristau fiel guztiya dago obligatuba gurutzia adoratzera eta devociyo izatera* (Pagola et al., 1993: 2681). *Obligatuba* hitzarekin batera, aipatu beharra dago, oin ohar bat dakarrela testuak, Bonaparte Ondarearen lan filologikoa egiteaz arduratu direnek, hau da, Deustuko Unibertsitateko *Tesitek* ikertaldeak eginikoa. Honelaxe dio oharrak: “Epentesi kontsonantikoa sortzen da “-u” bokalez bukatzen diren hitzak artikuluekin lotzean, epentesi hau leherkari biezpainkari ahostuna izanik.”<sup>2</sup>. Singularrean agertzeaz gain,

---

<sup>2</sup> Aipatu behar da, ohar honetan leherkari biezpainkari ahostuna dela jartzen duen arren, delako  $-b-$  bokalen artean igurzkari bilakatzen dela, inguruaren eraginez. Aldiz, Arbizun, sendoago ahoskatzen da Bokalen artean joanik ere, herskaria da. Honela adierazten du Hualde-k (Hualde, 1996:50): “Jakina denez, euskaraz, gaztelaniaz eta inguruko beste hizkuntza batzuetan bezala, /b, d, g/ fonema herskari ozen edo ahostunek [+ jarrai] diren [β, ð, γ] alofonoak dituzte ingurune askotan. Bereziki bi bokalen artean [β, ð, γ

pluralean ere irakur daiteke kasu honetan: [...] *jayo zan Mariya Virgiñagandic padecithu zuben Poncio Pilatosen aguintez; crucificatuba, illa ta enterratuba izan zan; jetxi zan infernubetara, pistu zan irugarren egunian illen artetic; igo zan cerubetara....* (Pagola et al. 1993: 2682). Lerro hauetan, singularrean, pluralean eta baita aditzean ere bokalen arteko *-b-* epentetikoa topa dezake irakurleak.

EHHako corpusari dagokionez, *-u + a > -uba* egitea oso zaila da, nekez gertatzen den bilakabidea da honako hau. Caminok (1998) zein Zuazok (2008) aurreratu bezalaxe, inkesta hauetako emaitzetan bilakabidea ez da agertu ia.

Esan bezala, ni konturatu naizelarik, behintzat, pare bat adibide besterik ez daude: *défentsá ostiá arta górde itteala ta an záiekí, sestúba ta ándik zúikatzen da, sártzen ikuste anian rau! (B) altxá ta tra-tra (B) sáltoka an sestúan bárrenen amorrarak...* (3-4. orr). Adibide honetan, *sestuba* eta *sestua* hitzak dauzkagu, adibidearen ondotik, jarraian hitz berdinarekin dator kontradibidea. Beste adibidea hauxe da: *estamaguai? Estamagua... estamuba* (106-107. orr). Hemen, bi forma dauzkagu hitz bakarrerako: *estamagua* eta *estamuba*. Lehenengotik bigarrena dator, lehenengoko bokalen arteko *g* erori, *estamaua* geldituz, *estamaua* hitzetik *au* monoptongatu eta *estamu(a)* geratuko litzateke; ondoren, *u* eta *a*-ren artean *b* kontsonantea sortu da, beraz, *-u + a > -uba* bilakabidea dago.

Hernaniko Dotrinarekin konparatuta, maiztasuna asko jaisten da. Esaterako, dotrinan normalki agertzen ziren *buruba* bezalakoak. EHHako hiztunek, aldiz, ez dute horrelakorik egiten: [...] *geo andikan beste biostoa aldia eo izatea burua, buruan muatik kentze zayon ua...* (84. or).

Bilakabide honetaz aparte, ikus liteke, epentesiaz gain bokalen arteko kontsonantizazio bat ere gertatzen dela. Adibidez, *meriendua... aatsaldian labak o bostak aldian o, kanpun lanian ai bazan...* (98. or). Kasu honetan, *labak*, berez, *lauak* litzake, baina *-u-* bokala beste *-a* bokalarekin elkartzean, kontsonantizazio bat gertatu eta azkenerako *-u > b* eginda, *lauak > labak* bihurtu da.

---

] soinuak aurkitzen ditugu beti ahoskera normalean [...]. Arbizuko hizketan ere horrelaxe da, baina salbuespen batekin; hots, /u \_\_ + V/ ingurunean ezartzen den kontsonantea [b] herskaria da [-jarrai].”

Epentesiari berriz ere helduz, Erizkizundi Iruikoitzaren corpusari dagokionez, 23. puntuan honako hau jartzen du (Erizkundi irukoitza, 1922-25:16):

23. U + a:

a) *Esku + a* (la mano, la main) = *eskua, eskue, eskuu, eskuba, eskube, eskia, esküa... ala eskiua?*

b) *Esku + an* (en la mano, dans la main) = *eskuan, eskuen, eskuun, eskuban, eskuben, eskian, esküan, eskuin... ala eskiuan?*

Adibide honetan, galdera bezala dagoen arren, testuetan, a) taldeko *eskua* eta *eskuba* parentesien artean azpimarratuta daude. b) taldeko *eskuan* eta *eskuun* daude azpimarraturik. Beraz, pentsa daiteke, singularrean *eskua* nagusi den arren, *eskuba* ere erabili izan dela inoiz. Inesiboarekin, aldiz, *eskuan* eta *eskuun* erabiltzen zirela uler daiteke.

Are gehiago, pare bat orrialde aurrerago, 47. puntuan, *-u + e* gertatzean, honako hau dakar (Erizkizundi Irukoitza, 1922-25:18):

47. *U + e: dauskue ala dauskube; eskuetan ala eskubetan?*

Puntu honetan, azpimarratuta *eskuetan* dago, baina aldaketa bat dago eskuz egina, idazmakinaz idatzitakoaren gainean. Honela dago zuzendurik hitza: *eskuetan* > *eskûtan*.

Astigarragari dagokionez, Furundarenak (1998) egindako lanean adibiderik baden arren, ez dira asko. Ondorioz, pentsatzera eramaten du bat Hernanin bezalaxe atzerakada latza jasan duela bilakabide honek. Astigarragako hizkera aztertzen den lanean, Milagros Astarbe Lasa izeneko emakume batek erabiltzen du, besteak beste: *Pentsu utsa, pentsuba ta etxian jaten zan, [...] Pentsuba, kokua ta iriña... [...] Nik ustet pentsuba izango dala [...]. Geo eskubakin pixkat ola zabaldu ta ostea or sartu.* (203. or.). Beste adibide bat ematearren, Maria Lujanbio Lasa-k ere honelaxe dio: *Or ayuntamentuba ementzan ba leno, oañe ezaun du arkuba, etxiorrek arkuba nola (d)un...* (207. or.).

Lasarten, aldiz, maizago gertatzen den bilakabidea dela dirudi. Izan ere, Labakak, Azurzak eta Bereziartuak (1996) eginiko azterketan, fonologiari dagokionez, ezaugarri nagusien artean sartzen dute *-u + a* > *-uba* bilakabidea. Erregela fonologiko nagusien artean definitzen dute (Labaka, Azurza eta Bereziartua, 1996: 8):

U+A=UBA: Fenomeno hau batez ere U-z amaitzen den hitzari A-z hasten den kasu marka eransteian gertatzen da:

Ezkondur + -a > ezkunduba

Buru + -a > buruba

Soñu + -a > soñuba

Negu + -a > neguba

Diru + -a > diruba

Soldadu + -a > soldaduba

Halaxe erakusten du EHHako Lasarteko corpusak ere: Hernanirekin alderatuta, askoz ere maizago azaltzen da bilakabidea. Arrazoa, beharbada, Hernaniko kaleetatik aldentzen den Epele auzoko datuak izatea liteke. Auzo hau, Aranoko bidean dago kokatuta, eta Lasarterekin lotura handirik ez du izan.

Dena dela, honako datu hauetan, Hernaniko EHHAn baino maizago agertzen da Lasarteko EHHaren corpusean. Badirudi nahiko errepikakorra edota erregularra dela. Hona adibide batzuk: A: *Buruban txokolate koloria zun...* (1. or.); *ondu in da, konpasiyo batea, inzendiyua etorri'a, suba, o etorri dia bendabalak...* (8. or.). "*lurra do txukatuba...* (15. or.); *Piñuban tankerakua da ta....* (19. or.); *Eman /akiyosu/ ura katubai.* (42. or.).

*Erizkizundi Irukoitzean*, Lasarteren kasuan, singularrean, *eskuba* forma besterik ez dago azpimarraturik. Inesiborako, aldiz, *eskuua*, *eskuban* hitzak daude nabarmenduta. Hortaz, testigantza hauetan ere islatzen denez, Hernanin baino joera handiagoa zegoen bilakabide hau gertatzeko.

Urnietaren kasuan, *Erizkizundi Irukoitzeko* corpusean ikus daitekeenez, ez dago bereziki azpimarraturik dagoen hitzik. Hitzaren singularra *eskuba* forma erdi azpimarraturik dagoela dirudi, baina ez da ziurra.

Donostiari dagokionez, Caminoren artikuluan, honako hau aipatzen da (2000: 67):

Egungo hitzun zaharretarik landa indargabeturik dagoen arren, ezpainbikoaren epentesia Donostiako ezaugarria da eta Antiguán, Igeldón edo Añorgan, bederen, nabarmen ageri zaigu; hurrengo adibideak Añorgakoak dira: *bizituba*, *diruba*, *txikituba*, *ikulluba*, *selluba* 'zigilua'; baita pluralean ere: *negubak*. [...] Donostiatik eskuin guti ageri da bilakabide hau egun, baina iragan mendean sortu Altzako bertsolarien lanean badira arrastoak, hala adizkietan *-nuben* 'nuen', *suben* 'zuen'- nola izenetan.

Lan honetan bertan aipatzen denez, Errenteriako bertsoetan bakan batzuetan besterik ez da ageri. Baina, Juan Kruz Zapiirainen *Santa Jenobebaren bizitza* lanean, aldiz, usu erabiltzen omen da. Artikuluaren autorearen arabera, bilakabidea agertze/ez agertzea, literatura joeren ondorio ote den aztertu beharko litzateke.

Oiartzunen kasuan, Koldo Zuazok argitaratutako artikuluko batean, honelaxe adierazten da (Zuazo, 1997: 412):

Ostera, /u\_\_\_ + V/ ingurunean ez Oiartzunen ez aztergai nuen eremu osoan ez dago inolako epentesirik. Bonaparteren (1877 : 152, 155 eta *phon.*) arabera, Arano, Goizuetan, Irunen eta Bortzirietan ziren *buruba*, *eskuba*, *zeruba* ebakerak –*uá* zein *ubá* jaso zituen Lezon ere- ez dira gaurregun ezagunak. Eremu horretan ez ezik, Euskal Herri gehienean ere atzerakada egin du ezaugarri honek Bonaparteren garaitik hona (gaurregungo eremuaz, ikusi Hualde 1996: 52).

Oiartzunekin jarraituz, Camino (2000)k ere adierazten duenez, egungo Oiartzunen ere ez da ageri Bonaparteren garaian ba omen zegoena.

Fraile eta Frailek, ere, 1996. urtean argitaratutako lanean, bokalismoaren partean adierazten denez, *-u-ri -ak* absolutibo plurala (*-ak*) edota ergatibo singularra gehitzean (*-ak*), bokal bilkura dela eta, azentua bereganatu eta *-a-* galtzen da. Hau da ematen den adibideetako bat: *katu + -ak > katúk* (Fraile eta Fraile, 1996:24). Edozein kasutan, hitz bateko *-u* amaiera, *-a* edo *-ak*-ekin elkartzean, ez da inola ere *-uba* bilakabidea gertatzen.

Beraz, puntu honetan esandakoak aztertuz gero, hasierako lerroetan Zuazo (2008) eta Camino (1998) hizkuntzalariek azaldutakoak baieztatu ditzakegu. Bilakabide honek atzerakada izugarria jasan du urte gutxi batzuetan, eta nik erabilitako corpusean ere honelaxe ikusten da. Izan ere, Hernaniko dotrina testuan, ezbairik gabe natural agertzen zaigu *-u + a > -uba* bilakabidea. Baina erabilerak atzera egin duela esango nuke, atlaseko eta *Erizkizundi Iruikoitzeko* corpusetan ikusten denez. Ondoko herrietako corpusek (Lasartekoak, Astigarragoak eta Oiartzungoak, adibidez) ere baieztatzen dute garai batean egiten zena gaur egun askoz ere gutxiago erabiltzen dela.

Egun, esango nuke, gazteen artean ez dela batere gertatzen, lagun artean bilakabidea indartzeko ez bada. Caminok (1998) adierazten duenez, hizkera estandarren ondorio izan daiteke generazio berrien galera hori:

Lehengora itzuliz: egun berean sumatzen den euskalkien galeraren joerak indar nabarmena ageri du gure batzuetan, eta hizkera estandarrak ordezkatzeko du emeki-emeki bertako hizkera. Honela,



gazteak etxean gurasoen ahotik ikasi aldaerak beste berriago batzuek ordezkatzeko dituzte, eskolakoek, liburuetakoe, ikus entzunezko hedabideetakoe. (Camino 1998: 143-144).

## Izen morfologia

### Datiboa

Izen morfologia atalean, datiboari erreparatu diot. Ageri denez, datibo pluralerako, forma pleonastikoa erabiltzen da. Pleonasmoa, argitasun edo zehaztasun morfologikoa bilatu nahi izateak dakar, eta ondorioz, morfemaren errepikapen bat gertatzen da, gramatikalki soberan dagoen arren, ulermena indartzen duena.

Datiboaren kasuan, *-aidi*, *-airi* formak dira pleonastikoak, Camino hizkuntzalariak halaxe adierazten du (2000: 70):

Pluraleko datiboaren aldetik ere badirudi egoera nahasixea dela; konplexua bai bederen: Euskal Herriko erdialdeko hizkera bati dagokion bezala *-ai* da atzizkia nahiz *-ei*-ren bat ere ageri den: *-airi* eta *-aidi* pleonasmok ere baditugu Donostian, inguruko herrietan bezala. Ezaguna denez.

Corpusari helduz, Claudio Otaegik itzultako Hernaniko Dotrina testuan, datiboa singularrean *-ai* eta *-ari* kasuak daude: [...] *da esatia, onai gloriya ematera, bere aguindubac eguiñ cituztelaco, ta gaistuai bucaera gabeco pena eguiñ etzithuztelaco.* (Pagola et al., 1993: 2683). *Argatic erregutzen diyot zorioneco Mariya beti virgiñari, aingueru S. Miguel zorionecuari, S. Juan Bautistari, S. Pedro ta S. Pablo apostolu santuari...* (2710. or.).

Datibo pluralari dagokionez, *-ai* marka erabiltzen duela ikus dezakegu, pluralerako: *G. Provechuvarequiñ artzen dutenai, cer convenico zaye eguithia, esan danaz gañera, fruitu aundiaguac iristeco?* (2704. or.) edota [...] *S. Pedro ta S. Pablo apostolu santubari, santu guztiyai eta zuri....* (2710. or.). Beste kasu bat, erakuslearekin agertzen den *-ei* kasua da: *Cergatic deitzen zaie oyei bienaventurantzac?* (2709. or.).

Hortaz, esan daiteke, ondorio bezala, dotrina honetan, singularerako *-ari* eta bokalarteko *ttap*-aren erorketaren ondorioz sortutako *-ai* dugula gehien. Eta pluralerako, aldiz, *-ai* eta *-ei* formak dira nagusi. *-ai* kasua: *G. Cergatic deitu diyezu pecatu capitalac cominmente edo gueyenian mortalac esaten zayen zazpiyai?* (Pagola et al., 1993: 2705) edota *E. Barca dizaizquigula Jaincua gure pecatubac agraviyatu ta calte eguin digutenai, guc barcatu diyegun becela.* (2692. or.). *-ei* kasua: [...] *dembora berian Jainkuaren Semia unithu citzayen gorputz eta anima oyei...* (2689. or.). Edo *M. Ondo*

*diyozu jaquintsubei dagoquiyela eta ez zuei, fedeco gauza guztiyen arrazoya ematia;* (2790. or.).

Euskaltzaindiaren EHHArako Izaskun Etxebestek eginiko elkarrizketetan, datiboari begira, honako datu hauek jaso dira Hernanin:

Singularrari dagokionez, *-ari* eta *-ai* bildu dira: [...] *zé'ari, sestú ari ta, itzála baléo bezela...* (3. or.). *-ai* kasuko adibide zenbait: [...] *plakua anai /giyarra/... aragiyai esate you, txerrikiyai giyarra ta pertsona /giyarrai/ berriz plakua...* (107. or.).

Pluralaren kasuan, *-ei* atzizkia erabiltzen du hiztunak: “*Oyei piztiya esaten zaye denei emen...*”

Baina, baita, Caminok (2000) lanean aurreratu bezala, *-aidi* forma pleonastikoa ere. Forma hau, *-i* datibo markaren gainean beste datibo marka bat *-ri/-di* gehitzean sortzen da, *-i* izatez jada badelako datiboaren marka, eta horren gainean eraikitzen delako *-ri / -di* forma.

Forma pleonastikoaren adibide batzuk: *zartaka (b)atzuidi punta kendu, arbolan ostuak o zeak, aaxkatxikik in, ta errenkan txirik sartu...* (84. or); *biyeiri zebait emango izuet* (145. or).

Erakusleetan, ere gertatzen da: *sarobiak deitze yote oidi, [...] aik neurtutajartze itu bee muarrik sartuta, ta sarobia deitze yete aidi* (24. or); *a, aana ta olakoi re, zea, ... ezurra, melokotoya ta oidi, ezurra, gañekon aziya...* (88. or); *gamionan... kubiertakin indaku airi...* (111. or), *adibinadora, oiri...emakumia, geina..* (134. or);.

Corpusa aldatuz, Bähr hizkuntzalariak eginiko *Erizkizundi irukoitza* testuan, 26. puntuan, honelaxe dago idatzirik:

26. A los hombres, aux hommes = gizonaki, gizonaidi<sup>3</sup>, gizonari, gizonei, gizoneri ala gizoner ala gizuner?

Hala bada, *gizonaidi* forma (orrietan azpimarraturik dagoena) erabiltzen bazen, eta oraindik ere erabiltzen bada, ezaugarri garrantzitsutzat joko nuke. Beharbada, ondoko herriekin alderatzeko hizkuntza-ezaugarri bereizgarri bat izan litekeelako.

---

<sup>3</sup> *Gizonai* hitzaren gainean *-di* idatzi zuen Bähr hizkuntzalariak.

Gai honekin jarraituz, Mikel Fernandezek eginiko deklinabideari buruzko lanean, hasieran, datiboari buruz honako hau dio: “2. *NORI eta NONDIK kasuetan zenbait forma bereizi agertzea espero dugu: -tikan, -idi....*”. Hortaz, Fernandezek lanean aurrehipotesizat jo zuena betetzen da, EHHA-ko corpusean, bederen. Fernandezek eginiko galdeketan, hiru elkarrizketatuek ere erabiltzen dute *-iri* edota *-idi* forma pleonastikoa. Adibide bezala, 4. orrialdeko 7. galderaren erantzuna da esanguratsuen. Honako hau da galdera: “- 7 ¿A quiénes corta el pastor el pelo?”. Erantzunak, hirurenak, hauexek dira: Justo Urreagak esana: “ [danai es...] / [bacuidi]. Ines Zapiain izenekoak emandakoak: “[seaidi... arkumeidi] / [aidi]”.

Liburuxka berean, *nori kasoari buruzko ondorioak* atalean, honako hausnarketak aurkezten ditu Fernandezek:

Kasu honetan aurrekoan bezalaxe, bokale arteko “r” jausten da. [...] Aldaketa hori singularreko adibide guztietan gertatzen da. Baita izen ordainetan ere: *nei, sui*, baina *ari* n gordetzen da, bestela bi bokaleak diptongoan besterik ez genukeelako izango. Pluralerako formak gehienetan singularrari *-di* erantsiz egiten dituzte. [...] Baina forma horien ondoan, *-di* gabekoak ere aurki daitezke informante berberengan eta hitz berberetan.[...] *-ei* duten formak ere ageri dira, gutxiagotan bada ere. [...] Ba dirudi nahasketa edo aukera desberdinak gerta daitezkeela pluralerako. Esan beharra dago informante guztiak ez dutela berdinean erabiltzen, hau da, neurri berean *-di* duten formak eta ez dutenak. [...] Izen ordainetan denek *-di* erantsi dute: *oidi, aidi*. Mugagabea: [...] Sail honetan erantzun ezberdinak jaso ditugu hiru informanteengan perpaus berberetan. (Fernandez: 14-15).

Hau horrela izanik, Fernandez konturatu zen hiztunek forma pleonastikoa ere irregularki erabiltzen zutela, arau zehatzik gabe. Hala ere, aipatu beharrean nago, *-di* eta *-ri* aldaera biak erabiltzen direla honako corpus honetan. Hau azaltzeko, hitz hauek erabiltzen ditu Fernandezek: “Hemen aldaketa fonikoak aurreko sailen antzeko gertatzen dira.-di forma horren bidez, batzuetan “ri” entzuten delarik.” (Fernandez: 15).

Fernandezen lanari dagokionez, azkenik, esan, bere laneko NORI kasua laburbiltzeko, pluralerako forma “berezia” erabiltzen dela dio, *-ai* eta *-ei* gutxiago, eta bi hauekin batera, *-aidi* forma.

Beraz, Caminok (2000) adierazi bezala, eta Fernandezek lanean argitaratu bezala, bertakoak diren forma pleonastikoak ageri zaizkigu, Fernandezek corpusean eta EHHAko lekukotasunetan. Bonaparteren Ondarearen parte den dotrinan, aldiz ez dago horrelakorik. Zer pentsatua ematen du honek bilakabidearen datatzeaz.

Inguruko herrietan egin diren ikerketekin alderaturik, Joxe Jabier Furundarena filologoak egindako *Astigarragako hizkera* (1998) lanean, badago Juanita Zapiain Etxeberri lekuko bat honela dioena: [...] *Geo zeozer erregalu(k eta) emate zizkiguten umiaidi ta kontentu...* (168. or.); Maria Josefa Otegi Ubillosek honela erabiltzen du: [...] *Bordaxarkua... Parientiak zittun, aidi arkaitzetik ekartze zittun goosti makilla eo.* (96. or.). Eta, Angela Zubillaga Mujika hala adierazten du: [...] *xextuak eta artuta, arrautzak eta ola emate zitxaxkaten aieri...* (Furundarena, 1998: 163).

Beraz, Astigarragako kasuan ere, txandakatze bat nabarmendu daiteke. Hernaniko corpusean bezalaxe, pluralerako *-ai /-ei* datibo atzizkia erabiltzeaz gainera, *-aidi* forma pleonastikoa ere erabiltzen dute hiztunek.

*Erizkundi Irukoitza* corpusaren kasuan, Lasarteko zein Urnietako testuetan Hernanikoaren testu zati berbera jartzen du. Lasartekoan, Urnietakoan eta Hernanikoan *gizonaidi* dago idatzirik, eskuz, eta azpimarratuta. Honen arabera, idatzitako formulez gain, *-aidi* forma ere erabiltzen da.

Lasarten egindako EHHA-rako elkarrizketetan *-ai* forma aurki daiteke datibo singularrerako: *suangilla deitzen diyogu orren tankerakuai...* (3. or), *deitze you sustarra puska ati... bekoai re deitze zayo....* (18. or.). Erakusleetan, aldiz, *-ei* eta *-i* daude: *euskeraz estakit nik nola esaten diyogun orrei....* Eta *goiz orri guk eunsentiya esate yogu guk...* (5.or.) edo *Da batez beste igual esate 'yogu guk orrei...* (9. or).

Corpus berean, datibo pluralari dagokionez, adibide gutxi batzuen artean, pleonastikoren bat aurki daiteke: *kapoya emiai esate zaye, /kapo emiak/ ta oidi gelditze zaye tontorra ttikittiki ttikiya ta bestia...* (29. or.). Inkestatzailearen oharretan ere, halaxe azaltzen da: *Ikus 2807-an ere, /barrabillaidi/.* (37. or.)

Forma pleonastikorik garbienak *barrabillaidi* edota Labaka, Azurza eta Bereziartuaren lanean (1996:31) datozen izenordeen eta beren indartuen atalean dauden *zuei(di)* eta *zeoi(di)* formak dira.

*Oidi* bezalako formak, erakusleen atalean daude. Liburuan, honako taula hau dator (Labaka, Azurza eta Bereziartua, 1996: 30):

<i>Oni</i>	<i>orri</i>	<i>ari</i>	<i>oori / auei</i>	<i>oiri /oyei</i>	<i>airi/ayei</i>
------------	-------------	------------	--------------------	-------------------	------------------

Baina, taula honetako *oiri* eta *airi* formek zalantza sortzen dute. Lehenago agertutako *oidi* adibidean bezalaxe, baliteke pleonasmorik ez gertatu izana. Izan ere, *oiri*, *airi* bezalako formak *oik* + *-ri* bezalako batetik sortuak izan daitezke, eta kasu horretan, ez lirateke pleonastikoak izango. Besterik gabe, *oik/ aik-ri* erantsitako *-ri* datiboa litzake (*oik/aik +ri > oiri/airi*). Hala ere, agian, *oieiri > oiri* bilakabidea gertatu da, eta hala balitz, forma pleonastikoa izango litzake.

Hala ere, beste deklinabide kasu batzuk aipatzean, pare bat adibide ematen dira, azterketaren atal honetan azter ditzakegunak. Esaterako, bokatiboa aipatzean agertzen diren bi adibideok: *geoidi*, *zeoiri*. Edota erakusleak aipatzean agertzen den *semioidi* (*seme + oidi > semioidi*). (Labaka, Azurza eta Bereziartua, 1996: 21).

Aranoren kasuan, Zubiri eta Perurena-k (1998: 71) diotenaren arabera, datiboa singularrean dagoenean, normalean *-r-* erori egiten da: *mug.*: *gizonai*, *semiai*, *alabai*, *astuai*, *morroyai*....; *mugag.*: *gizonei*, *semei*, *astoi*, *tontorrei*.... Baina *i-z* edo *u-z* amaitzen direnen kasuan, mantendu egiten da datiboaren atzizkia *-ri* mugatuan zein mugagabeen: *mendiri*, *argiri*, *bururi*, *eskuri*,... baita mugagabeen *-i-z* amaitutako hitzekin ere: *morroiri*, *balkoiri*, *zalairi*.... Hala ere, badirudi, mugatuan *mendiyai* forma ere erabiltzen dela. *-a-z* eta *-i-z* bukatzen direnen kasuan, berdin gertatzen da: *alabai*, *bordai*, *mendiri*, *argiri*... . *-o-z* amaitzen direnen kasuan, hiru formak bereizten dira, hau da, mugagabea, singularra eta plurala: *basoi*, *basuai*, *basuri*. *-u-z* amaitzen direnekin, berdin dute plurala edo mugagabea: *aingeruri*, *eskuri*,... singularra da bereizten dena: *aingeruai*, *eskuai*...

Beraz, Zubiri eta Perurenak hitz amaieraren arabera sailkatzen dute datibo atzizkiaren erabilera. Edozein kasutan, *-ri* edo *-i* da atzizkia nagusiki.

Goizuetari dagokionez, Zubiri eta Perurenak (1998) adierazten dutenez, Goizuetan *-ri* morfema beti mantentzen da singularrean nahiz pluralean, Aranoko edo Hernaniko hizkeran ez bezala:

Kasu honen morfemak, *-ri* atzizkiak alegia, Goizuetako hizkeran bere baitan duen *-r-*a ez du sekulan galtzen.... [...] Honela laburbil genitzake atzizki honen formak:

*-ri*: kontsonantez nahiz diptongoz amaitzen diren izen arruntak: *gizónari*, *lúrrari*, *morróiari*, *balkóari*,...

*-ri*: bokalez bukatzen diren izen arruntak nahiz bereziak: *emákumeri*, *besóri*, *burúri*... (Zubiri & Perurena, 1998:118).

Oiartzunen, datiboari dagokionez, Goizuetan bezala, *-ri* formari eusten zaiola erakusten dute Fraile eta Fraile-k (1996). Hauen arabera, datiboko *-ai* atzizkiarekin batera, *-ri* plurala egongo litzateke, beti. Honako adibide hauek ematen dituzte: “*ukenduri, umiri, porruri, olluri. [...] bestiri, zueri.*” (Fraile eta Fraile, 1996: 73). Izen arruntetan, izena bokalez, kontsonantez, bizidun edo bizigabeen kasuan, pluralean beti mantentzen da *-ai*. Eta kasu batzuetan, *-ri* ere jartzen du tauletan: *seme-i* (mugg.)<sup>4</sup>, *semi-ai* (sg.), *semi-ai/(ri)* (pl.) (Fraile eta Fraile, 1996:78). Hortaz, aditzera ematen dutenez, pluralerako *-ri*, eta *-ai* atzizkiak erabiltzen dira.

Oiartzungo erakusleen kasuak nire arreta bereganatu du. Erakusle singular eta datiboaren kasuan, honako hauek aipatzen dituzte autoreek: *NORI: onei, orrei, arrei/ (arei)*. (Fraile eta Fraile, 1996:81). Pluralean, ordea, honako hauek daude: *NORI: abei, oiri, airi* (82. or.). Urrunegi joatea da behar bada, baina hemen azpimarratuko nuke erakusle plural datiboen berezitasuna. Alde batetik, pluralean den *-ri* delako atzizkia, eta, bestetik, lehen mailako pluraleko erakuslearen formak atentzioa eman didalako (*abei* delakoak). Bigarren eta hirugarren mailakoak *airi, oiri* forma erakusten dute. Posible litzateke *airi* < *aieiri* eta *oiri* < *oieiri* formatik eratortzea. Nola gertatu den hori? Hiru bide bururatzen zaizkit<sup>5</sup>: 1) *aieiri* > *aiiri* (*ei* monoptongazioa) > *airi* (*ii* bokal bikoitza sinplifikatzea). 2) *aieiri* formaren aurrean *-ei-* berezko datibo marka galtzea ondorengo *-ri* gehitzen zaionean. 3) *aik* + *-ri* eta *oik* + *-ri* gertatzea.

Beraz, datibo pluralari dagokionez, forma pleonastikoa Hernaniko hizkuntza-ezaugarri eksklusiboa ez dela ikus daiteke. Corpusean eta bertan egindako euskararen azterketetan ikusi baita, gutxienez, Astigarragan eta Lasarten gertatzen den bilakabidea dela. Hala ere, badirudi Arano eta Goizuetako muga ere ez duela pasatzen forma pleonastiko honek. Gehiago sakondu beharko litzateke corpus zabalago batean, dudarik gabe, eta Urnieta, Andoain, eta Donostiako kasuetan arreta gehiago jarri.

Egun, Hernanin zaharrenek oraindik erabiltzen dute, baina gazteen artean ez da gehiegi entzuten, egiari zor. Urnietako gazteei, aldiz, entzun izan diet *-aidi* forma pleonastikoa. Andoaindarrei ere entzun izan diet horrelakorik. Donostian, Caminok

<sup>4</sup> Adibideak liburuan agertzen diren arren, laburdurak nireak dira: sg. = singularra; pl. = plurala; mgg. = mugagabea.

<sup>5</sup> Aukera hauek hipotesiak dira, benetako bilakabidea zein den jakiteko, lanketa sakonago bat beharko litzateke, bistan denez.

(2000) adierazitakoaren arabera, egoera nahasia izan arren *-airi* eta *-aidi* pleonasmok agertzen dira, ondoko herrietan bezalaxe.

## Aditz morfologia

### *-zka- vs -zki-*

Corpusa irakurri, berrirakurri eta aztertuz, corpusean, nor-nori-nork aditz laguntzailearen sailean, *dizkio* beharrean *dizka* edo *dixka* bezalako formak ageri dira. Ez da eksklusiboki erabiltzen den aditz forma; *dizkiyo* bezalakoak ere badira eta. Egun, esango nuke, *dizka* bezalakoak ia erabat desagertu direla gazteen artean.

Hernaniko Dotrinari dagokionez, hainbat adibide bil daitezke testu honetan: *G. Gure Señorari, cer oraciyo esaten dizcatzu principalmente?*” (Pagola et al. 1993: 2692); *G. Projimuari calte modu oyec eguithen dizcatenac edoceiñ guisetan dala, [...] ta eguiñ dizcaten calte guztiya ornitzecuarequiñ.* (2696. or) edota [...] *goguan erabiltzia puscacho batian edo Jaunac eguiñ dizcan mesediac, edo bere eriyotza ta pasiyua...* (2702. or).

Lekukotasun hauen bitartez, atenzioa ematen du, XIX. mendean, hernaniarra ez zen batek ere, forma hau erabiltzea nor-nori-nork pluralerako. Honek herrian bizirik zegoen forma bat dela erakusten du, eta kanpotarrek ere, bertako hizkera erabiltzean, *dizka* bezalakoak zerabiltzatela. Are gehiago, corpus honetan, *dizkiyo* bezalako formarik ez dago, beraz, forma bakarra izan zitekeela dirudi.

Caminok (2000) azaltzen duenez, nor-nori-nork aditz laguntzailean, Hernanin ohikoa zen *-ka* morfema datiboa hirugarren pertsonarako erabiltzea. Esan nahi da, *dizkio* bezalako formetan, *dizka* (edo *dixka*) bezalako formak nagusi ziren. Gainera, Hernaniri dagokionez, pluralgilea *-z-* busti egiten da, *dizka* beharrean *dixka* bezalakoak sortuz:

Lasarte-Usurbil alderditik ezker eta Hernani aldean bederen nori saileko morfema plurala den *-z-* txistukari bizkarkaria bustitzen da: *dixka* & *dizka* ‘dizkio’ *zaizka* & *zaixka* ‘zaizkio’, [...] Hernanin *sartze xaixka* ‘sartzen zaizkio’ eta *kentze xixkatela* ‘kentzen zizkiotela’ bildu ditu Izaskun Etxebestek (EHHA). (2000: 74)

Caminok (2000) erabilitako adibideak Etxebestek Hernaniko EHHArako bildutakoak dira. Maiztasun gutxiagorekin agertzen diren arren, hona hemen zenbait: *zuk ari jartze ixkazun barrenen kaakolak eta zeak e, ollo tripak...* (3. or) “*ari joste xaixka kapiyuak* (59. or); *Arbola bakoitzai bi mentu sartze xaixka...* (88. or); [...] *eun kiloko sei kilo uste et kentzexixkatela...* (137. or); *Tortillak itte ixkat arroltzak jateko*

[...] *leno itte nixkan tortillak arroltzak jan tzezan.* (149. or); *Orrek paatziá ixka zorrak* (150. or).

Adibide hauekin guztiekin erakusten da hiztun hauen artean, gutxienez, forma hau bizirik dagoela, baina beldur naiz ez ote den zaharrengan gelditu den forma besterik. Horrek beste ikerketa baterako ateak irekitzen ditu. Dena dela, honako corpus honetan, erabiltzen dela ikusi da, eta gutxienez Bonaparteren Ondareko testuaz geroztik bizirik iraun duela.

Hernanitik kanpora atereaz, Donostiaren kasuan, Caminok (2000: 75) artikuluan honako hau esaten du:

[...] Donostian ere bada *-ka-* morfema datiboa hirugarren pertsonarako eta bertako zerrendetan *dizkat* eta *nizkan* ageri dira (Irizar 1991) eta *dizkiyot* eta *dizkat* edo *nizkiyon* eta *nizkan* dira hirian guk beti entzun ditugunak.

Honen arabera, badirudi Donostiara ere hedatutako hizkuntza-ezaugarria dela, Antiguako auzora behintzat. Kasu honetan ere, beldur naiz gazteek ez ote duten holako forma erabat galdu.

Astigarragara hurbilduz, Furundarenaren (1998) elkarrizketako batean, honelaxe dio lekukoak: *Gue osabai sorgiñak atea zizkala ta, or birian, da eztaki zer da, etxea etorrita.* (94. or), *Amar-amaikan bat urte eo ola, da etorri zan da saardua, da sakakortxua saardua eman nixkan da...* (100. or); *Tapatube, tapakin ta gañian arri aundiatzuk, eo eztakit pa nik beai jarriko zitxazkan.* (202. or).

Kasu hauek guztiek Hernaniko egoera berbera erakusten dute. Gutxienez, lana argitaratu zenerako elkarrizketatuek bizirik zutela hizkuntza-ezaugarri hau. Badirudi Hernani-Astigarragaren kasuan, zaharrenek behintzat badutela oraindik gorderik nor-nori-nork aditzaren forma berezi hau.

Lasarten, Labaka, Azurza, eta Bereziartuaren lanean (1996: 42), honako hau dago idatzirik:

Datiboetan, NOR plurala denean, hirugarren pertsonari dagozkion NORI marketan **-zkiyo-** / **-zka-** eta **-zkiye-** / **-zke-** alternantziak agertzen dira: **erori zaizkiye / zaizke; esan dizkiyo / dizka.**

EHHArako bildutako corpusean, badira zenbait adibide baliagarri: *Ok... eizeko zakurrai jartze zaizka...* (24. or); *berrittu o eztakit nik sañak berritezaxkan o ze itte*



*zayon, ari ite zayo gorri gorri berriz e...* (29. or) edota *txukiñakin indakuak... artaburua baldakizu? Arri kentze zaixkan ostuak...* (35. or).

Adibide hauekin, Labakak Azurzak eta Bereziartuak (1996) adierazten dutena baieztatu besterik ez da egiten, *dizka* bezalako formak bizirik daudela, eta zaharrenek behintzat erabiltzen dituztela.

Nafarroako muga pasatuz, Aranon, Hernanin gertatzen denaren antzeko emaitzak jaso zituzten Zubiri eta Perurenak (1998: 87):

Zertxobait aldatzen direnak, baina ez pluralgilea dela eta, baizik eta adizkiaren erroari begiratuta, *nori = hari* eta *haiei* dagozkien formak dira: informatzaileetako batek (*nori = hari*) *dizkat, dizkak, dizkau, dizkatzue...* eta (*nori = haiei*) *dizkiyuet, dizkiyuek, dizkiyueu, dizkiyue/dizkayue...* bezalako formak eman dizkigu, hau da, *dizki-/dizka-* aldaerekin...

Beraz, Aranon ere, *dizka* bezalako formak ere jaso izan dira. Honek Arano Beterritik gertu kokatzen du.

Goizuetako muga pasatzean, ordea, gauzak aldatu egiten dira (Zubiri eta Perurena, 1998: 137). Kasu honetan, *nori hari* denean, *dit, diot, ttik/ttin, dio, ttizute, diote* formak nagusitzen dira. *Nori haiek* denean, aldiz, *dittet, ttiztet, ditek/-n ttitte, ttizteu, dizute, ttizute...* formak dira gailentzen direnak. Hark-hari/haiei denean, hortaz, Hernaniko hizkeratik erabat aldentzen diren aditz formak agertzen dira Goizuetako hizkeran: *dio/ttio, dite, ttizte*.

Oiartzunen kasuan, aditzak badu zeresana. Hainbat berezitasun aurki daitezke Oiartzungo aditz laguntzailearengan. Lan honekin loturik, Fraile eta Fraile-ren lanean (1996) datibo pluralaren marka *-zka-* forma pare bat topa daitezke. Objektuarekiko komunztadura eza azaltzerakoan, esaterako, honako hau dakarte:

Objektua plurala denan, pluraltasun horren arrastoa aditz laguntzailean ageri ohi da gehienetan. (d)(i)ttut (2), dauzkit (22), di(r)a (1), genizkan (30)... gure kasuan ez da ordea beti gertatzen. (Fraile eta Fraile, 1996: 107)

Adibide gehiago, nor-nork aditz paradigmak aurki daitezke: indikatibo orainean zein lehenean, nor 3. pertsona plurala denean, *izka* edo (*t*)*izkan* formak daude (Fraile eta Fraile, 1996: 112). Nor-nori-nork paradigmako formak erabiltzen dituzte nor-nork formarentzat. Are gehiago, nor-nori sailerako, autoreek adierazten dutenez, sail honetan forma aniztasuna ezaugarri nagusi bilakatzen da. Oraindirako, nor-nori-nork eta nor-nork erabiltzen baitira nor-nori formez gain. Baina lan honetan interesgarriena dena da,

3. pertsona plurala eta datiboa denean zer gertatzen den. Hainbat adibide aurki daitezke, esaldietan zein paradigmetan: *Aik. airi* denean: *olokoi askotan jatorrak atetzen tizkatela umik e... (22).*

Paradigmatan, nor-nori-nork pluralean, indikatiboko honako formak daude (Fraile eta Fraile, 1996: 116):

	<b>Nik</b>	<b>Ik (g)</b>	<b>Ik (e)</b>	<b>Arrek</b>	<b>Guk</b>	<b>Zuk</b>	<b>Zuek</b>	<b>Aik</b>
<b>Arrei</b>	(t)zaizkat/ zizkat  Izkiot Izkionet	(i)zkak	(i)zkan	Izka  (i)zkiok (izkion)	Dizkau  Izkau Izkanau	Izkazu	Izkazute	(i)zkate  (i)zkiotek (i)zkioten
<b>Airi</b>	Izkatet  Izkiot Izkionet	(i)zkak	(i)zkan	(i)zka  (i)izkiok (i)zkion	Izkiyou  Izkau Izkanau	Izkazu	Izkazute	Dizkate  Izkiotek izkioten

Lehenaldirako ere, berdin erabiltzen da (Fraile eta Fraile, 1996: 117):

	<b>Nik</b>	<b>Ik (g)</b>	<b>Ik (e)</b>	<b>Arrek</b>	<b>Guk</b>	<b>Zuk</b>	<b>Zuek</b>	<b>Aik</b>
<b>Arrei</b>	Nizkan  Nizkioken Nizkionen	Yizkioken	Yizkionen	Zizkan  Izkioken Izkionen	Genizkan /geniyon  Genizkioken genizkionen	Zeniyon	Zeniyozuten	(t)zizkaten Izkioten  Izkioteken izkiotenen
<b>Airi</b>	Nizkiyoten  Nizkioken Nizkionen	Yizkioken	Yizkionen	Izkiyoten  Izki(y)oken Izki(y)onen	Genizkan  Genizkioken Genizkionen	(t)zenizkan	(t)zeniyozuten	(t)zizkaten /zioten Zioteken ziotenen

Armiarma.eus atarian, klasikoen gordailua izeneko atalean, bilatzailearekin hainbat adibide mota aurki daitezke. Esaterako, *diozka* bezalako aditz forma, Sebastian Mendiburu jesuitak erabili zuen *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai* (II) eta (III) (1760, 1904) ataletako hainbat otoitz gai jakin batzuetan. Berdin Agustin Kardaberaz hernaniarrak *Ejercicioak-III* (1761) obran. *Dizka* bezalakoak ere badira Kardaberaz *Kristaben bizitza* (1744) lanean, edota Agustin Iturriagaren *Ipuinak* (1842) obran. *Zaizka* bezalakoak ere erabiltzen ditu lehentxeago aipaturiko Sebastian Mendiburuk *Jesusen amore nekeei dagozten zenbait otoitz-gai* (II) (1760, [1904]) edota Krispin Beobide-ren *Asisko loria* (1885). Autore hauek guztiak Hernani ingurukoak dira (Kardaberaz eta Iturriaga bertakoak, Mendiburu Oiartzuarra eta Beobide Azpeitiarra, baina Tolosan luze bizitakoa).

Nolanahi ere, esan, Lapurdin ere *zaiozka*, *diozka*... bezalako forma zaharrak ere aurki daitezkeela. Horrek, Lapurdiko eta Beterriko lurren lotura bat erakuts dezake. Gainera, kontutan izanda, Axularren garaitik hona Beterri eta Lapurdiko itsas aldeek harremana zutela elkarren artean, aukera handitu egiten da.

Hortaz, nondik letorke *-zki-* eta *-zka-* pluralgileen txandakatzea? *zaizka* < *zaio* + *-zka* posible ote? Eta *dizka* *diozka*-tik baletor? Hala balitz, sakonean *\*io* aditz erroa legoke.

Hala ere, teoria honetatik aldenduz, Lakarra hizkuntzalariak *Dialektologia diakronikoaz eta euskara batu zaharraz* izeneko artikulu batean Borja Ariztimuño filologo gaztearen hitzak ekarri eta oin ohar batean adierazten du beharbada *diozka* bezalako formak *\*eradun* aditzetik etor daitezkeela (Lakarra, 2011:197)

123 Borja Ariztimuñori zor diot *diozka*-ren arrarotasunaz (eta jatorriaz) ohartzea; hark esandakoari, *diuzka* < *diauzka* < *dirauzka* katebegiak gehituz gero, egungo egunean ere -itxura- eta funtzio-aldaturik, hori bai- *\*eradun*-en formaren aztarnak G-n bizirik direla frogatzen digu. *Diozka*-ri buruzkoak, *dizku*, *dizt* eta “barneko z plurala” duten guztientzat baliagarri bide dira; ez dirudi B-ko *-za* barneratu denik edo G mendebaleko *-z-* atera B eta A-n.

Berdin aipatzen da Céline Mounole hizkuntzalariak 2015ean argitaratutako *Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz* artikuluan, 481. orrialdeko oin oharrean:

XVIII. mendearen bigarren erditik aitzina, delako erabilera urrituz joan zen baina ez zen guztiz desagertu. Izan ere, Ariztimuñoren ustez (k. p.), gipuzkera modernoaren adizki batzuk *\*eradun*-en bidez esplika daitezke, ad. *diozka* (*diuzka* < *diauzka* < *dirauzka*). Lakarrak (2011: 197) delako hipotesia *dizku*, *dizt* eta « barneko z plurala » duten adizkiei ere hedatzea proposatu du.

Alde batetik zein bestetik ote datorren erabakitzeko, beste ikerlan bat ireki beharko litzateke, eta sakontasunez landu gaia.

## ONDORIOAK

Lan honetan, hasieran aurreratu bezala, hiru hizkuntza-ezaugarri hautatu ditut, hasiera batean aipatutako irizpideen arabera (ikus 9. eta 10. orrialdeak).

Helburua, Hernaniko hiru ezaugarri hartu eta ondoko herrietan gertatzen ote den aztertzea da. Nolabait, isoglosa edo marra marraztea ezaugarri hauen hedaduraren inguruan. Lan honetarako, Hernaniko hizkera biltzen duen corpora erabiltzeaz gain, mugakide dituen herrietako euskararen inguruko testuak ere erabili ditut: Astigarraga, Lasarte, Donostia, Oiartzun, Arano eta Goizueta...

Ezaugarriei dagokienez, lehen orrialdeetan aipatu ditudan irizpideak baliatu eta fonologiatik, izen morfologiatik eta aditz morfologiatik ezaugarri bana aztertzen ahalegindu naiz xumeki.

Fonologiaren atalean,  $-u + a > -uba$  bilakabidea hautatu dut, jada ia erabat galduta dagoen bilakabidea dela konturatu nintzelako. Ondorio horretara iritsi naiz, gazteen artean ez ezik, Hernanin, erabili dudan corpusean ere galera bat nabaritu dut eta. Oroit *Hernaniko dotrinan* zein maiz gertatzen zen, eta *EHH*Akoan zein gutxitan. Ondoko herrietan, gehienetan galtzen doan arren, Lasarte izan da hobekien heldu diona.

Izen morfologian, *-airi/-aidi* datibo pleonastikoa hautatu dut, corpora lantzen nindoan heinean, hainbat bider agertzen baitzen. Horretarako, ondoko herriekin alderatu, eta Beterrin gertatzeaz gain, inguruko herrietan bizirik dagoen gertakaria dela egiaztatu dut: Lasarte, Oiartzun, Astigarragan...

Azkenik, amaitzeko, aditz morfologiari erreparatu diot, nor-nori-nork eta nor-nori formetan gertatzen den *-zka-* datibo plural markari begiratu diot. Etxean, oso forma ezaguna dudan arren, kalean ez da batere entzuten, baina badirudi eskuetan erabili dudan corpusean behintzat, Astigarraga, Lasarte eta Aranon ere erabiltzen den forma bat dela. Muga, Oiartzun eta Goizueta aldean dagoela dirudi.

Ildo beretik jarraituz, konturatu naiz oraindik asko dagoela aztertzeko *-zka/-zki* pluralgilearen gainean, gramatikazko lan diakroniko bat egitea komeni da. Azterketa

sakonago eta luzeago bat eskatzen du, ondoko herriez gain Euskal Herriko beste dialektotetako testuekin alderatzeko. Ikusi baita, Hernaniko autoreez edo hiztunez gain, Oiartzun edo Azpeitiakoak ere inoiz erabili dutela, eta are gehiago, Lapurdiko kostaldearekin erlazio bat izan duela. Gainera, oraindik argitu gabeko kontua da nondik etor litekeen pluralgilea.

Beste ondorio nagusi bat, belaunaldien artean gertatzen den etena da. Hizkuntza-zaugarri hauetan ikusi denez, bilakabide nabari bat izan da denbora pasatu ahala. Corpus batetik bestera jada aldaketa ikus daiteke, eta egungo gazteen artean euskara entzutean ere, norbera jabetu daiteke gauza bera gertatzen ari dela.

## BIBLIOGRAFIA

Bähr, G. (1923-25), “Erizkizundi Irukoitza: Hernani” in Azkue, R. M. (1923-25) *Erizkizundi Irukoitza*. Bilbo: Euzko Argitaraldia.

\_\_\_\_\_, (1923-25), “Erizkizundi Irukoitza: Urnieta” in Azkue, R. M. (1923-25) *Erizkizundi Irukoitza*. Bilbo: Euzko Argitaraldia.

\_\_\_\_\_, (1923-25), “Erizkizundi Irukoitza: Lasarte” in Azkue, R. M. (1923-25) *Erizkizundi Irukoitza*. Bilbo: Euzko Argitaraldia.

Beobide, K. (1885) *Asisko Loria*. In *Armiarma Klasikoak* <<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/B/BeobideAsisko.htm>> [Azken kontsulta: 2016/01/19].

Camino, I. (arg.) (1998). Zer dago dialektologiaren gibelean? I. Camino, *Nafarroako Hizkerak*. Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatea *Jardunaldietako agiriak: Iruñea, 1997ko azaroa (24-28)*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea. 111-144.

\_\_\_\_\_, (2000) “Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko” In Koldo Zuazo (arg.), *Dialektologiako gaiak*, Gasteiz: UPV/EHU- Arabako Foru Aldundia. 51-81.

\_\_\_\_\_, (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.

Etxebeste, I., (2008-2014) “Hernaniko Hizkera” in Euskaltzaindia, (Arg.), *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. Bilbo: Euskaltzaindia. (Argitaragabea).

\_\_\_\_\_, (2008-2014) “Lasarteko Hizkera” in Euskaltzaindia, (Arg.), *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. Bilbo: Euskaltzaindia. (Argitaragabea).

Fernandez, M. (Datarik gabe) “Deklinabideari buruzko galdaketa Hernanin. (Hiru informante)”. (Argitaragabea).

Fraile, I., & Fraile, A. (1996). *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala. Kultura Batzordea.

Hualde, J. I. (1996), “Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarritz”, *Uztaro* 18, 49-60.

Irizar, P. D. (1991), *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (2 liburuki). Bilbo: Euskaltzaindia.

Iturriaga, A. (1842) *Ipuinak*. In *Armiarma Klasikoak* <<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/I/IturriagaIpuinak.htm>> [Azken Kontsulta: 2016/01/19].

Kardaberaz, A. (1744), *Kristaben bizitza*. In *Armiarma Klasikoak* <<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/K/KardaberazKristabaI.htm>> [Azken kontsulta: 2016/01/19].

— (1761), *Ejerzizioak II*. In *Armiarma Klasikoak* <<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/K/KardaberazAfeckoak.htm>> [Azken kontsulta: 2016/01/19].

Labaka, A., Azurza, M. E., eta Bereziartua, J. I. (1996). *Lasarte-Oriako euskararen azterketa*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako udala.

Lakarra, J.A., (2011), “Dialektologia diakronikoaz eta euskara batu zaharraz”, in Epelde, I. (arg.) (2014), *Euskal dialektologia : lehena eta oraina*, EHU, ASJU-ren gehigarriak 49, 155-241.

Mendiburu, S. (1904 [1760]), *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai II*. In *Armiarma Klasikoak* <<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MendiburuOtoitzII.htm>> [Azken kontsulta: 2016/01/19].

— (1904 [1760]), *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai III*. In *Armiarma Klasikoak* <<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MendiburuOtoitzIII.htm>> [Azken kontsulta: 2016/01/19].

Mounole, C. (2015), "Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz", in B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre*, Bilbo: EHU. 473-490.

Pagola, R. M., Beola, A., Iribar, I., Iribar, J. J. (1993), *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: Gipuzkera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (Deiker), Euskal Ikaskuntzen Institutua, 4, 2681-2711.

Perurena, P. & Zubiri, J. J. (1998), *Goizuetako eta Aranoko hizkerak*. Leiza: Nafarroako Gobernua, Goizuetako Udala eta Aranoko Udala

Salsamendi, J. J. (1998). *Astigarragako Hizkera*. Astigarraga: Astigarragako Udala.

Zuazo, K. (1997). "Oiartzungo hizkeraren kokagunea". *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 29 (76), 397-426.

\_\_\_ (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

Zubiri, J., Perurena, P., & Navarra (Comunidad Autónoma). Dirección General de Política Lingüística. (1998). *Goizueta eta Arano herrietako hizkeren ezaugarri orokorrak*. Iruña: Nafarroako Gobernua, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia.